

**GURASO ELKARTEEN HEZKUNTZA
JARDUERA ONEN
3. LEHIAKETA**

**IKAZTEGIETAKO HERRI ESKOLAKO
LAGUNAK GURASO ELKARTEA**



Lagunak Guraso Elkartea

AURKEZPENA eta HELBURUAK

Ikaztegietako Herri Eskola "Eskola Txiki" bat da eta aurtengo ikasturtean, 2 urtetik 12 urte bitarteko 54 haur ari dira bertan ikasten. Geurea Eskola Txikia izanik, ditugun baliabideak eta aukerak eskola haundi batekin alderatzuz murriztagoak dira, baina gure txikitasunean, gure haurrei ahalik eta aukera gehien eskaintzen saiatzen gara.

"LAGUNAK Guraso Elkartearen" helburua geure seme-alaben hezkuntza proiektuan parte hartzea da, proiektu hori indartuz, osatuz eta baliabideak eskainiz. Zuzendaritza nahiz irakasleekin elkarlan zuzena burutzen dugu eta familia eta ikastetxearen artean zubi-lana egiten dugu, beti ere familien parte hartzea eta ordezkaritza bultzatuz.

Guraso Elkartearen kudeaketa 4 gurasoren artean burutzen dugu: lehendakaria, lehendakari ordea, idazkaria eta diruzainaren artean.

2012-2013garren IKASTURTEKO JARDUERAK

Gure proiektua egunerokotasunean egiten dugun ahalegina da, ekintza eta asmo txiki ugari osaturik dago eta horren adierazgarri dira jarraian aipatuko ditugunak. Ikasturte honetan gaurdaino egin ditugun lanak eta datozen hilabeteetan egingo ditugunak zehazten dira bertan:

☑ LAN BUROKRATIKOAK

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean Guraso Elkarteko kide berrien erregistroa egiteaz gain, diru laguntza eskaera ere aurkeztu dugu.
- Guraso Elkarteko urteko kuotaren eskaria gurasoen artean egin eta kobroen kontrola eraman dugu.
- Eskolako haurren zerrenda jasotzen den liburuan, bajak apuntatu eta bazkide berriak izendatu ditugu.
- Eskolako gelak erabili ahal izateko eskolari baimenak eskatu dizkiogu: Guraso Elkarteko bilerak egiteko, guraso asanbladak egiteko, eskolaz kanpoko ekintzak egiteko, haur txokorako, etb.
- Udalaren instalazioak erabili ahal izateko Udaletxeari baimena eskatu diogu: Eskolaz kanpoko ekintzak egiteko (frontoia, gimnasioa...), kurtso bukaerako festarako, etb.
- Ikasturtean zehar, eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen duten haurren ordainketaren kontrola eraman eta monitorei egiten zaien ondainketa ere kudeatzen dugu.
- Urteko planaren txostena bete. Ikasturtean zehar egitea aurreikusten ditugun ekintzekin txostena bete genuen kurtso hasieran.
- Udaletxean diru-laguntza eskatu. Urtean zehar egiten diren eskolaz kanpoko ekintzak antolatzeke diru-laguntza eskaera luzatu genuen Udaletxean.
- Eskolako guraso guztiei oharren bidez garaian garaiko informazioa banatzen diegu, hala nola LOMCE Hezkuntza erreformaren inguruko berriak, Foru Aldundiak Sare Sozialei buruz interneten jarri duen on-line ikastaroari buruzkoak, Eskola Txikietako dokumentalaren edapenaren ingurukoak, etb.

☑ ESKOLAREKIN ETA UDALAREKIN ELKARLANEAN

- Eguberrietan Olentzero. Eguberriak iritxi aurretik Guraso Elkarteak Olentzeroren muntaia egin genuen, txabola prestatu, pinu bat jarri, opariekin atondo, belar metatxo bat jarri, etb... Eskolako haurrei pinuan zintzilikatzeko apaingarriak egiteko eskatu genien eta honela, abenduaren 20ean eskolako haur guztiak, irakasleak eta guraso elkarteak kideak Olentzeroren bueltan bildu ginen eta haurrek pinua atondo zuten. Guzti hau eguberrietako abestiekin girotu eta alaitua izan zen.

Abenduaren 24rako ere Olentzeroren etorrerako prestaketak egin genituen. Olentzerok herriko haurrei ekarriko zizkien opariak erosteaz arduratu ginen. Beti ere haurren adina kontutan izanik, opari didaktikoak aukeratu, erosi, oparitarako paperean bildu eta prestatu genituen. Eguberri bezperan, goizean eskolako haur eta irakasleekin herrian abesten ibili ginen eta arratsaldean, Olentzeroren etorrerarako opari banaketa antolatu genuen, Olentzero egongo zen tokia prestatu, gaztain batzuk danbolinean erre eta jendearen artean banatu, eta herrian eguna girotzen saiatu ginen.

- Euskararen eguna. Egun horretarako eta alde aurretik eskolan gure proposamenak aurkeztu genituen. Eta egunean bertan, haurrek prestatutako ekitaldira hurbildu eta bertan parte hartu genuen. Irakasleei gure laguntza osoa eskaini genien haurrekin egiteko antolatu zituzten jokuetan.
- Matrikulazio kanpaina: Aurten lehendabiziko aldiz, matrikulazio kanpaina hasi aurretik herriko guraso berriekin jarri ginen harremanetan. Eskola ezagutarazteko asmoz, ate irekien egun bat izendatu genuen (irakasleekin aldiz aurretik adostuta) eta bertan, gurasoei zituzten galderak eta zalantzak argitzeko aukera eskaini zitzaion. Eskolako zuzendariak eskolari buruzko informazioa zabaldu eta instalazioak erakutsi zizkien. Guraso Elkarteak ere aurkeztu ginen eta Eskola Txikiak dokumentalaren DVD ale bana oparitu genien. Aparteko arrakasta izan du ekimen honek, guraso berriak pozik eta esker onez azaldu ziren. Emaiza ere bikaina izan zen, izan ere herrian zeuden 7 haurretatik 7rak matrikulatu zituzten eskolan.
- Korrika txikia: Martxoaren 14ean iluntze aldera igarotzen zen Korrika Ikaztegietatik, eskola orduz kanpo beraz. Hori zela eta, Korrika txiki bat egitea proposatu genion eskolari eskola-orduetan. Herrian bertan egin genuen Korrika Txikia, bide gorria eta plaza inguruan eta guraso elkarteak korrika txikiaren aurretik ibili ginen kotxearekin musika jarrita haurrak animatzen. Jarraian testigua plazaratu, leloak irakurri, testiguko idatziaren irakurketa egin eta haurrek korrikako abestiarekin koreografia bat egin zuten. Bukatzeko globo askatzea eta txokolatada izan genituen Guraso Elkartearen eskutik. Iluntzean berriz, Korrika ofizialean Guraso Elkarteak kilometro erdi batez lekukoa eraman genuen eta gurekin batera herriko haur eta guraso askok ere bai.
- Haur Txoko Zerbitzua: Udalaren proposamenari erantzunez eta eskolaren babesarekin, haur txoko zerbitzua martxan jartzeko aukerak aztertzen ari gara. Oraindano ez da inoiz zerbitzu hau eskaini herrian eta horretantxe ari gara, 2013-2014 ikasturterako aukera guztiak aztertzen, aurrekontuak eskatzen, finantziario bideak eztabaidatzen, araudia ezagutzen, etb.
- Bizikidetzaren plana: Hezkuntza komunitatea osatzen dugunon artean harreman positiboak sustatuko dituen plan bat burutu nahi dugu eta honen bitartez errespetua, elkarlana, tolerantzia, elkarri entzutea eta antzerako baloreak sendotzen joan. Irakasle, ikasle eta gurasoen arteko lotura konfidantzazkoa izatea lortu nahi dugu eta edozein arazoren aurrean, konponbidearen aldeko jarrerak bultzatuko dituen plan bat sortu. Gai honekin hasi besterik ez gara egin, momentuz beste herri batzuetako ereduak ditugu eskuartearen eta pixkanaka gai hau gure eskolan txertatzen joateko ahaleginak egiten joango gara.

ANTOLATZEN DITUGUN ZERBITZUAK

- Eskolaz kanpoko ekintzen antolaketa: Ekintza eta aukera ezberdinak aztertu, hauerren artean proposatu eta galdeketa egin, emaitzak bildu eta taldeak osatu, monitoreak bilatu eta ekintzak martxan jarri ditugu. Ikasturte honetan futbola, eskulanak, euskal dantza eta esku pelota antolatu dira.
- Gabonetarako, Aste Santurako eta udarako ludoteka: Eskolako oporraldietarako ludoteka zerbitzua antolatu eta eskaintzen dugu.

BILERAK

- Kurtso hasieran ludoteka garaietarako zaintzaile lanak egingo dituzten herriko gazteen lista prestatu eta beraiekin bilera bat egin genuen. Funtzionamendua zehaztu eta baldintzei buruz alde zuzenetik hitz egin genuen.
- Eskola Txikitako koordinakundean parte hartu. Aurtengo ikasturtean Zuzendaritza Taldean egotea tokatu zaigu eta taldearen barruan Eskola Txikitako festaren arduradunak gara. Hilean behin, Zuzendaritza Taldeko bilerak egiten ditugu Altzon eta hiruhilean behin, Batzar Orokorrak burutzen ditugu Gipuzkoako Eskola Txikitako ordezkari guztiekin.
- Organo Goreneko partaide. Guraso elkarteko hiru kide, Organo Goreneko kide ere bagara eta bertako bilerekin ere izaten gara.
- Guraso bilerak. Urtean gutxienez hiru bilera egiten ditugu eskolako gurasoekin. Horretaz aparte, Guraso Elkarteko kideak arratsaldero eskolako atarian egoten gara eta gainontzeko gurasoek edozer gauza, galdera edo zalantza dutela ere gurekin egoteko ez dute inolako zailtasunik izaten.
- Eskolarekin bilerak: Batz bestea, bi hilean behin elkartzen gara eskolako zuzendaria, ikasketa burua eta idazkariarekin, eta eskuartearen ditugun proiektu edo ekintzei buruz edo eta eskolako gertakariei buruz hitz egiten dugu.
- Udalarekin bilerak: Haur txokoa dela eta, bizikidetzaren gaia landu behar dela eta, herriko festak datozela eta, Udalarekin ere harreman zuzena daukagu eta beharren arabera biltzen gara.

BESTELAKO EKINTZAK

- Gurasoei formazioa eskaini. Formazio eskaintzak aztertu, gurasoen artean galdeketa egin eta interes gehien piztu duten ikastaroak eskeini zaizkie gurasoei. BAIKARAREN bitartez, abenduan "Oihurik gabe hezi" eta otsailean "Sexualitatea eta affectibitatea hezi" ikastaroak burutu genituen. Maiatzerako berriz, Nerea Mendizabal psikologa eta pedagogaren eskutik, 2 ordu inguruko hiru saio antolatuko ditugu "Errespetuzko Komunikazioa, Bizitzarako Komunikazioa" izenpean.
- Eskola Txikitako arropen salmeta egin. Abenduan eta martxoan (astebetez aldi bakoitzean) Eskola Txikitako arropak jarri ditugu salgai eskolan. Aurten Olaberriaren izango den Eskola Txikitako festarako dirua ateratzeko ekimen bat da hau.
- Eskolako festa: Kurtso bukaeran eskolako festa antolatuko dugu. Goiz partean haurren arteko pelota partiduak eta musika eskolako emanaldia antolatuko dira. Jarraian haurrentzako bazkaria izango da eta ondoren gurasoena. Arratsalderko ume jolasak, zinta karrera, puzgarriak eta gurasoen arteko futbol partidu bat antolatuko dira.

☑ **ARGAZKIAK**



Olentzeroren prestaketa (2012-12-20)



Eguberri bezperan abesten



Olentzeroren etorrera



Korrika Txikia (2013-03-14)



**Kurtso
Bukaerako
Festa**



**ANIMATU ZAITEZTE
ONDO PASATUKO
DUGU !!!!!**

2012ko Ekainaren 09an

Egitaraua

<p>11:00 Festaren Hasiera</p> <p>11:00 Gimnasia Erritmikoa</p> <p>11:15 Pelota</p> <p>12:30 Musika Eskola</p> <p>Artelan Erakusketa Eskolan</p>	<p>13:30 Ikasleen Bazkaria</p> <p>Makarroiak tomatekin Olaeko erreta patatakin Helatua Merienda Ogia Uria</p> <p>14:30 Helduen Bazkaria</p> <p>Urdai azpikoa Zainzurak Patea Kazuelita txapirioekin eta garbakin Kroketa Bakallaua vizkai erara eta kostilla errea Goxua edo sorbetea Ardoa, Sagardoa, Kafea eta kopak</p> <p>15:00 - 18:00 Jolas Parkea</p> <p>Puzgarriak Zinta Karrera (Bakoitzak bere hukiketa ekarri) Ikasleentzako Merienda</p>
---	--

2012-2013 ikasturteko kurtso bukaerako festa egitaraua (Aurten ere antzeko festa antolatuko dugu)



Kurtso bukaerako festako haurren bazkaria eta arratsaldeko puzgarriak